

Garazi Canales Martínez
Asti-Leku Ikastola (Portugalete)
PAÍS VASCO



ZU

Ura, ura sentitzen nuen inguruan, hotz nintzen. Oraindik nuen gogoan laztandu ninduzun azken aldia, nola zure ezpainak nireen inguruan pausatu ziren denbora luze batez. Guztiok genekien agur bat zela, eta ez genuela berriro elkar ikusiko.

Orain, ur-jauziak nire gorputza laztantzen du, eta barruan ditudan sentimenduak atera nahian ohiuka hasten naiz. Gorrotoa, tristezia, maitasuna, pena...

Nire buruan nahaste bat besterik ez daukat. Ez dut pentsatu nahi eragin nuen sarraski horrek pertsonen bizitzak jokoan jarri zituela. Orain, egun hori ezin dut gainetik kendu eta horregatik herritik ihes egin behar izan dut, nire iragana atzean utzita, lagunak, familia, zu...

Oroimina sentitzen dut, udako ilunabar hoietan nola urak gure gorputzak ferekatzen zituen urpean igeri egiten geundela kostaldeko hondartza ederretan, eta nola zure begi berdeek su berezi batekin begiratzen ninduten. Kuadrillako guztiakin pasatu genituen jai guztiak, gau txorien antzera abestuz eta dantzatuz.

Familiarekin gabon guztiak ditut gogoan, suaren beropean txikitako istorioz betetzen zen egongela eta urduri oheratzen ginen Olentzeroren esperoan. Horiek bai garai onak.

Leherketa horren zaratak nire buruan jarraitzen du, nire betebeharra egin nuen bai, baina inolako errurik ez zuten pertsonak kaltetuta atera ziren. Egin behar nuen gauza bakarra lantegi bat suntsitzea zen, bertako sotoetan gauza ilegalak gordetzen zituztelako.

Bonba horrek logela lehertu zuen, baina nire arrebaren bizitza eta ametsak aurretik eraman zituen berarekin. Ni ezin nintzen pisu horrekin bizi, horregatik alde egitea erabaki nuen.

Inork ez daki non aurkitzen naizen, baina hemen bizitza berri bat eraikiko dut. Agian egunen batean berriro elkartuko gara eta zin dagizut idazten dizkizudan gutun guzti hauek helduko zaizkizula eta ez dugula inoiz elkar ahaztuko.